

INTERNET: ERABILERA SEGURUA

Legeak pertsonen eskubideak, zure eskubideak, babesten ditu. Erakundeek Legea betearazten dute, euren betebeharra da-eta. **INTERNETEN BIDEZ KALTE EGITEN BADIZUTE, LEGEAK DEFENDATU EGINGO ZAITU.**



Legeak gainerako pertsonen eskubideak ere babesten ditu. Inoren eskubideak errespetatzen ez badituzu, legez kanpo jokatuko duzu. Legeak zure egintzen ondorioz sortutako erantzukizunen araberako zigorrak ezarriko dizkizu.

HANKA SARTU NAHI EZ BADUZU, ZUHURTZIAZ JOKATU ETA INFORMAZIOA BILATU. ZURE ONERAKO DA,LEGEA BETETZEN EZ DUELA EZ DAKIENA ERE ZIGORTUKO DUELAKO LEGEAK.

- **INTERNETEN EZ DAGO ERABATEKO ANONIMATURIK** eta sarean egiten de guztiak segurtasun-indar espezializatuak jarraitzeko moduko arrastoa uzten du. Horrez gain, arrasto hori nahikoa ez bada, ohi bezala ikertu dezakete: zantzuen atzetik joatea, pistak bilatzea eta saretik kanpo galderak egitea.
- **LEGEA EZARRI EGITEN DA BETI**, biktimak babesten ditu eta errudunei erantzukizuna eskatzen die, edozein adin dutela ere, bai “BENETAKO bizitza fisikoan” bai “BENETAKO online bizitzan”.
- Internet beste eremu , beste leku bat da, eta, bertan, Haragi-hezurrezko pertsonak gaude. Ezizenaren atzean, izen-abizendun norbait dago.....norbait dago beti. Pertsona hori abusupean Egon daiteke, baina **LEGEAK BABESTU EGITEN DUENEZ, BADU BERE BURUA DEFENDATZERIK.**

- Sarean aurkitu ditzakegun pertsona ezezagunak beti ez dira urrunekoak. **EZ BILATU ARAZORIK**, Ez arriskatu. Zorteari ez egin erronka.
- **INTERNETEK IRISMENAK EGITEN DUGUNAREN ERAGINA BIDERKATZEN DU**. Kalterik eginez gero, larritasunaren arabera Zigorra ezarriko da, iruditutakoa edo nahi izandakoa baino handiagoa izan daitekeen diru-kopurua ordaindu beharko duzue.
- **ZIGOR-ERANTZUKIZUNA EZ EZIK, ZIGOR EKONOMIKOAK ERE EZARTZEN DIRA**, eragindako kalte-galerengatik. Konpentsazio moduan, **zuk zeuk eta gurasoek edo legezko tutoreek** zurekin handi-handia izan daitekeen diru-kopurua ordaindu beharko duzue.
- Batzuetan, **TXANTXAK LARREGIZKOAK IZAN DAITEZKE**. Gainerakoen kalterako txantxak utzi alde batera.
- **EZER EGIN BAINO LEHEN, ZENBAIT ALDIZ PENTSATU**. Sarean, dena dena geratzen da erregistratuta, eta klik bakar batek biktimari berari besteko kalte eragin ahal dizu. Egindakoan, ez dago atzera bueltatzerik.